

## **Kutxabankek aurre-akordio enpresariala lortu du bere informatika-hornitzaileen enplegua mantentzeko**

- **Konpromiso honen bitartez, Ibermatica, IDE, Servimatica eta Serinor etxeen lan bolumena bermatzen da, finantza erakundeari zerbitzua ematen dioten enpleguen gaineko eragina txikitzeko**
- **Kutxabankek IBM gehitu du aurre-akordio honetara**

Bilbo, 2013ko otsailaren 27a. Aurre-akordioa azken zortzi hilabeteetan gauzatu da eta Kutxabanken eta konpainia ezberdinen artean alde anitzeko negoziaketa korapilotsua behar izan du. Alde batetik, finantza Taldeko informatika sailaren kudeaketan aldaketa sakonak ezarriko ditu, BBK, Kutxa eta Vitalen bateratzean ezarritako helburuetako hori bat baitzen. Gainera, euskal finantza erakundeak kontrataturiko informatika-lanen kalitatezko zerbitzua eta eraginkortasuna ere bermatuko ditu.

Beren negozio esparruetan lider diren ospe handiko konpainiekin lortu da aurre-akordioa, hau da, IDE – Accenture, Ibermatica eta IBM-rekin, eta bezero eta hornitzaileen arteko epe luzeko harremanaren bitartez bideragarria egiten du enpresa hornitzaileetako enpleguaren egonkortasuna, hau da, IDE, Ibermática, Servimatica eta Serinor enpresetakoa.

**IDE-k** eta Kutxabankek, finantza Taldearen aplikazio-informatikoak garatu eta mantentzeko egun indarrean dagoen zerbitzu-prestazio kontratua luzatzea adostu dute, 2014ra arteko iraupena zuena. Akordio honek, kontratuari lotutako beharginen lanpostuak bermatzen ditu Kutxabankek eta Accenturek %50ean partaidetutako IDE – Informática de Euskadi enpresan.

**Ibermaticak** eta Kutxabankek finantza erakundearen beste informazio zerbitzuak barneratzea adostu dute, erakundeari zerbitzua ematen zieten langileen lanpostuak mantentzea bideragarria egiten duen epe-luzeko akordio baten bitartez.

**IBM** konpainiak Kutxabanken azpiegitura teknologikoak kudeatuko lituzke egungo kalkulu zentruetatik, eta IDE-n, Ibermatican eta Servimatican azpiegituren kudeaketarako eremuan aritzen den langilego espezializatu guztia hartuko du, bai eta enpresa hauek alor honetan duten lan-bolumena ere.